



**AMEZKETAKO UDALA**



## **2024ko UDALEKU IREKIETAKO BEGIRALEAK, KOORDINATZAILEA KONTRATAZEKO ETA PRAKTIKALDIRAKO BI PERTSONA HAUTATZEKO OINARRIAK**

### **1. Deialdiaren xedea.**

Oinarri hauen helburua Amezketako Udalak antolatzen dituen “Udaleku Irekietako” begiraleen zein koordinatzailearen aldi baterako lan-kontratuak lehiaketa sistemaren bitartez egiteko deialdia arautzea da. Aisialdiko begirale titulua eskuratzeko praktikaldia egin behar duen bi pertsonen hautaketa ere arautzen da.

Kontratuaren iraupena, ekainak 25etik uztailaren 19ra arte. 4 aste, astelehentik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara. Ordainsariak ondorengoak dira, gutxi gorabeherakoak:

- Begiralea, 1.295 €, gordina.
- Koordinatzailea, 1.836 €, gordina.
- Praktiketako pertsona, 350 €ko dirulaguntza, laneko kontraturik gabe.

Aukeratuko den begirale kopurua, aldiz, izena ematen duen hurren kopuruaren arabera izango da. Horrenbestez, deialdi honekin zerrenda bat egingo da eta izangaiek lortutako puntuak emango dute zerrenda horren hurrenkera.

### **2. Prozesuan parte hartzeko baldintzak begirale eta koordinatzailearentzat.**

Onartua izateko eta, hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko ondorengo baldintzan bete beharko ditu:

1. 18 urte beteta izatea, izena emateko epea bukatuko denerako.
2. Udalekuen prestaketan eta udalekuak irauten dituen egun guztietan parte-hartzea eta disponibilitatea izatea.
3. Aisialdirako begirale edo zuzendari titulua izatea.
4. DBHko ikasketak eginda izatea.
5. Euskararen 2. hizkuntza-eskakizunaren edo baliokidea den tituluaren jabe izatea.
6. Funtzioak behar bezala betetzea eragotz dezakeen gaixotasunik nahiz muga fisikorik ez izatea.

7. Inolako administrazio publikoaren edo autonomia erkidegoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik diziplina-espeditente bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

8. Natura sexualeko delituengatiko aurrekari penalik ez izatea.

Baldintza horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako bete beharko dira.

### 3. Eskabideak aurkeztea

**Epea:** apirilaren 23tik maiatzak 5era, biak barne.

Eskabideak, behar bezala beteta, Amezketa Udaleko egoitza elektronikoaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, ondoko estekan sartuta: [https://www.amezketa.eus/tramiteak/zerbitzu\\_telematikoak/](https://www.amezketa.eus/tramiteak/zerbitzu_telematikoak/), *Erregistro elektronikoa* atalean, *Erregistroan alta eman* atalean, eta B@kQ edo sinadura digitala erabilita.

**Oharrak: korreo elektronikoz aurkeztutako inprimaki eta agiriak ez dira onartuak izango.**

Hautagaiak begirale eta koordinatzaile prozesuetara aurkeztea nahi izanez gero, bi instantzi a aurkeztu beharko ditu eta bakoitzean aurkezten den prozesua zehaztu beharko du. Instantziekin batera prozesu bakoitzari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

### 4. Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskaera orria beteta (I. eranskina) (www.amezketa.net webgunean zein Amezketa Udaleko Erregistroan eskuragarri egongo da, baitere).
- NANaren fotokopia.
- Begirale edo zuzendari tituluaren fotokopia.
- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituen agirien fotokopiak.
- Natura sexualeko delituen ziurtagiria, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako datarekin.

<https://sede.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Sede/eu/tramites/certificado-registro-central>.

NANaren fotokopia eta Natura sexualeko delituen ziurtagiriari dagokionez, dokumenturik ez bada aurkezten eta, hautagaiak ez badu uko egiten espreski, udala arduratuko da eskuratzeaz.

Ohar garrantzitsuak:

1. Merezimenduak baloratuak izateko, ezinbestekoa izango da hautagaiak, eskaera orrian (I. Eranskina), idatziz jasotzea lehiaketan kontuan hartzea nahi dituzten merezimenduak.

Eskaera orrian jasota ez dauden merezimenduak ez dira baloratuko. Eskaeran aipatzen dituzten merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien fotokopiak, aldiz, (titulu, lan esperientzia eta bestelakoak) Udalak dokumentu hauek bere esku ez dituen kasuetan bakarrik aurkeztu beharko dituzte. Ondorioz, berriak diren agiri edo tituluak bakarrik aurkeztu beharko dira, aurrez Udalean aurkeztu ez direnak.

2. Lan-esperientzia ziurtatzeko kontratu laboralaren fotokopia aurkeztuko da edo erakundeak egindako ziurtagiria, eta ber tan lanpostua eta iraupena era egokian jaso beharko da, bestela ez da kontuan izango.

## **5. Izangaiak onartzea.**

Eskaera orriak aurkezteko epea amaituta, alkateak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak. Horiek, udaletxeko iragarki taulan eta udal webgunean ([www.amezketa.eus](http://www.amezketa.eus)) argitaratuko dira.

Ondorengo iragarkiak, baita, udaletxeko iragarki taulan eta udal webgunean ([www.amezketa.eus](http://www.amezketa.eus)) argitaratuko dira.

Behin-behineko zerrenda eta epaimahaiaren osaketa argitaratu eta ondorengo egunetik hasita, izangaiak erreklamazioak aurkezteko edo eskabideak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea izango dute.

Behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira, baldin eta erreklamaziorik edo zuzenketarik egiten ez bada. Erreklamazio edo zuzenketaren bat izanez gero, beste ebazpen baten bitartez onetsiko edo ezetsiko dira; eta halaber, ebazpen horren bitartez onartuko dira behin betiko zerrendak, eta arestian adierazitako eran argitaratuko dira.

## **6. Kalifikazio – epaimahaia**

Merezimenduak baloratuko dituen epaimahaia osatuko dute: Amezketako Udaleko gazteriako ardura duen zinegotzia, PSZko dinamizatzailea eta Amezketako Idazkari-kontuhartzailea. Idazkari lanetan arituko da idazkaritzako administraria.

## **7. Hautaketa prozesua**

Ondorengo taulatan agertzen diren irizpideei ezartzen zaizkien puntuazioen arabera, hautagai bakoitzeko puntuazio bat aterako da eta horren arabera kontratazioa egiteko erabiliko den hurrenkera lortuko da.

**BEGIRALEEN HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAKETA:**

<b>OINARRIA</b>	<b>PUNTUAKETA</b>
Amezketako udaleku irekietan esperientzia	0,5 puntu (denboraldi bakoitzeko) – 2 puntu (gehienez)
Amezketako Gazteria zerbitzuetan eskarmentua	0,5 puntu (denboraldi bakoitzeko) – 2 puntu (gehienez)
Udaleku itxitan edo irekietan esperientzia (6-10/15 egun bitartekoak)	0,2 puntu (txanda bakoitzeko) – 1 puntu (gehienez)
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutuak izatea (haur edo lehen hezkuntzako gradua edo teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	1 puntu
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutzen aritzea (haur edo lehen hezkuntzako gradua edo teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	0,5 puntu
EGA titulua edo baliokidea.	2 puntu

**ZUZENDARIAREN HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAKETA:**

<b>OINARRIA</b>	<b>PUNTUAKETA</b>
Amezketako udaleku irekietan eskarmentua	0,5 puntu (denboraldi bakoitzeko) – 2 puntu (gehienez)
Amezketako Gazteria zerbitzuan eskarmentua	0,5 puntu (denboraldi bakoitzeko) – 2 puntu (gehienez)
Zuzendari bezala udaleku itxietan edo irekietan esperientzia izatea (6-10/15 egun bitartekoak)	0,2 puntu (txanda / urte bakoitzeko) – 1 puntu (gehienez)
Begirale bezala udaleku itxietan edo irekietan esperientzia izatea (6-10/15 egun bitartekoak)	0,2 puntu (txanda / urte bakoitzeko) – 1 puntu (gehienez)
Hezitzaile bezala udaleku itxietan edo irekietan esperientzia izatea.	0,2 puntu (txanda / urte bakoitzeko) – 1 puntu (gehienez)
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutuak izatea (haur edo lehen hezkuntzako gradua edo teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	1 puntu
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutzen aritzea (haur edo lehen hezkuntzako gradua edo teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	0,5 puntu
EGA titulua edo baliokidea.	2 puntu

## 8. Hautagaien zerrenda

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako emaitzen batura izango da. Berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek hartu dira kontuan, hurrenez hurren: 1. Lan esperientzia, 2. Ikasketa – mota.

Hautaketa bukatu ondoren, Epaimahaiak lortutako puntuazioaren ordenaren arabeko zerrenda argitaratuko du Amezketako Udaleko iragarki taulan eta Web orrian, eta onarpen proposamena igorriko dio dagokion organoari, aurretik aipatutako kontratazioak egiteko.

## 9. Aisialdi begirale titulua eskuratzeko praktikaldia egiteko aukera

Amezketako Udalak bi begirale postu erreserbatuko ditu Aisialdi begirale titulua eskuratzen ari diren pertsonak bere praktikaldia egin ahal izateko. Praktikaldi hau egin ahal izateko, eskatzaileak Aisialdi begirale titulua ateratzen ari den begirale eskolaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du non egiaztatzen baiten ikastaroaren zati praktikoa burutu behar duela.

Praktikaldi postu hauetarako bi hautagai bat baino gehiago aurkeztuko balira, hautaketa egiteko irizpideak ondorengoak izango dira:

OINARRIA	PUNTUAKETA
Haurren heziketaren inguruko ikasketak bukatuak izatea (haur edo lehen hezkuntzako gradua edo teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	1 puntu
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutzen aritzea (haur edo lehen hezkuntzako gradua edo teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	0,5 puntu
Gazte Elkarte bateko kide izatea.	1 puntu
EGA titulua edo baliokidea.	2 puntu

## 10. Begirale, zuzendari eta praktikaldiko pertsonaren hautaketa egin ondoren

Behin hautaketa prozesua amaituta, Udalak begirale, zuzendari eta praktikaldiko pertsonen Kontratazio eta hautaketak onartuko ditu. Behin hau eginda, udaleku irekiak antolatzekeo bilerak antolatuko dira eta hautatuak bertan parte hartu beharko dute, ezinbestean.

## 11. Begiraleen eta koordinatzailearen betebeharrak.

Kontratatu izateko, ezinbesteko baldintza izango da udalekua hasi baino egun batzuk lehenago burutuko den prestaketa saioan parte hartzea.

Ezarritako baldintza hau ez betetzeak, hautagaiak zerrendatik kanpo gelditzea ekarriko du automatikoki. Era berean, zerrendatik kanpo gelditzea ekarriko luke, prestaketa asteburuan ikusiko balitz prozesuan parte hartzeko baldintza guztiak ez direla betetzen.

Laneko era guztietako hutsegiteak 48 ordu lehenago jakinarazi beharko dira idatziz eta ondoren, dagokion hutsegitea zurrizko dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Arrazoitu gabeko lan hutsegiteak falta oso larriak izango dira eta urriaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren eraberritutako testua onartzen duenaren 96)b artikuluan esaten denaren arabera jokatu da. Hau da, langilea kaleratua ahal izango da eta aurrerantz an berriro kontratatzeko desgaitua gelditu liteke.

## 12. Datu pertsonalen babesa.

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak 2016ko apirilaren 27koak datu pertsonalen tratamendu eta datu horien zirkulazioa libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainerako araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak fitxategi baten parte izatera pasatuko dira, eta helburua hautaketa prozesua kudeatzea izango da.

<b>Tratamenduaren helburua eta legitimazioa</b>	Dokumentuen sarrerako eta irteerako erregistroa kudeatzea, paperean eta elektronikoi, administrazio prozeduraren 39/2015 Legean jasotakoarekin bat.
<b>Eskubideak</b>	Interesdunek beraien datuak atzitu ahal izango dituzte, eta datuak zuzentzeko eskatu eta, hala badagokio, datuak ezabatzeko, datuei aurka egiteko edo tratamendua murrizteko.
<b>Tratamenduaren arduraduna</b>	AMEZKETAKO UDALA. CIF: P2000900G Fernando Amezketarren enparantza z/g. 20268 Amezketa Gipuzkoa
<b>Datuak babesteko ordezkaria</b>	P3RSEUS CIBERSEGURIDAD, SL. dpd@p3rs.eus
<b>Jarduera-tratamenduak</b>	<a href="http://www.amezketa.eus/udala/datu-pertsonalen-babesa">www.amezketa.eus/udala/datu-pertsonalen-babesa</a>

# I. ERANSKINA

Inprimakia – eskaera orria



**DEIALDIA: 2024KO UDALEKU IREKIETAKO BEGIRALE ETA KOORDINATZAILEAREN  
KONTRATAZORAKO ETA PRAKTIKALDIKO PERTSONEN HAUTAKETA EGITEKO PROZESUA.**

CONVOCATORIA: PROCESO SELECTIVO PARA LA CONTRATACIÓN DE MONITORES/AS Y  
COORDINADOR/A Y SELECCIÓN DE PERSONAS EN PRÁCTICAS DE COLONIAS ABIERTAS 2024.

### ESKATZAILEAREN DATUAK - DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

<b>IZEN-ABIZENAK - ENTITATEA / NOMBRE Y APELLIDOS – ENTIDAD</b>	<b>NAN edo IFK / DNI o NIF</b>	<b>SEXUA / SEXO</b> G/H E/M Besteak/Otros
<b>JAKINARAZPENAK JASOTZEKO HELBIDEA / DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN</b>		
<b>HERRIA / POBLACIÓN</b>	<b>P.K. / C.P</b>	<b>TELEFONOA</b>
<b>EMAIL-A</b>		

### AUKERATZEN DEN LANPOSTUA – PUESTO AL QUE SE OPTA

<b>Begiralea</b> Monitor/a	<b>Korodinatzailea</b> Coordinador/a	<b>Praktikaldia</b> En prácticas

### HEZIKETA - FORMACIÓN

<b>Deialdiarako baliagarria den edo diren titulu akademiko ofiziala/k – Título o títulos académico/s valorable/s en la convocatoria</b>



## EUSKERA TITULUA – TÍTULO EUSKERA

<b>Badaukat:</b> Estoy en posesión:	<b>BAI</b> Sí	<b>Tituluaren izena:</b> Nombre del título:	<b>EZ</b> No
--	------------------	--	-----------------

## ESPERIENTZIA - EXPERIENCIA

<b>Sartze Data</b> Fecha de Ingreso	<b>Uzte Data</b> Fecha de cese	<b>Administrazio edo enpresaren izena</b> Administración o empresa	<b>Betetako lanpostua</b> Puesto ocupado

**Oharra: Ierro denak betetzen badira, beste orrialde batean osatu daiteke eta inprimaki honi erantsi.**

Nota: si se rellenan todas las líneas, se puede completar en otra página y adjuntarlo a este impreso.

Udaleko Alkate-Udalburuari eskatzen dio / Solicita al Alcalde:

Adinduna naizelarik, 2024ko udaleku irekietako begirale eta koordinatzailearen kontrataziorako eta praktikaldiko pertsonen hautaketa egiteko prozesuko oinarriak ezagutzen ditudala eta bertan hartu nahi dudala. / Que, siendo mayor de edad, conozco las bases del proceso selectivo para la contratación de monitores/as y coordinador/a y selección de personas en prácticas de colonias abiertas 2024, y que deseo participar en él.

ZINPEAN AITORTZEN DU / Declara bajo juramento:

Diziplina-espediente bidez edozein administrazio publikotako edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organotako zerbitzutik berezita ez egotea, eta ebazpen judicial bidez enplegu edo kargu publikoetarako erabateko desgaitasuna edo desgaitasuna berezia ez izatea, ez eta lan-kontratuko langileen kasuan betetzen zituzten antzeko eginkizunak betetzeko desgaitasuna ere. Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragozten duenik.

No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

DOKUMENTAZIO EGIAZTAGARRIA (ez da aurkeztu behar) DOCUMENTACIÓN VERIFICABLE (no hay que aportar)

Amezketako Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza-sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden dokumentu hauei buruzko kontsultak eta/edo egiaztapenak egingo ditu, salbu eta berariaz aurka egiten baduzu (kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu beharko duzu)

El Ayuntamiento de Amezketa mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, realizará las consultas y/o verificaciones de los siguientes documentos que se encuentren en poder de la Administración, salvo que Vd se oponga expresamente (en cuyo caso deberá aportar la documentación)

1. Nortasun datuen kontsulta / Consulta de datos de identidad
2. Natura sexualeko delituen ziurtagiria / Certificado de Delitos de Naturaleza Sexual.

Nire datuak kontsultatzeari uko egiten diot, eta arrazoi hauek ematen ditut: Me opongo a la consulta de mis datos, alegando los siguientes motivos: \_\_\_\_\_

AGIRIA sinatu aurretik, irakurri DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA		Antes de firmar el DOCUMENTO, debe leer la INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS	
<b>Tratamenduaren helburua eta legitimazioa</b>	Dokumentuen sarrerako eta irteerako erregistroa kudeatzea, paperean eta elektronikoki, administrazio prozeduraren 39/2015 Legean jasotakoarekin bat.	<b>Fines y legitimación del tratamiento</b>	Gestión del registro de entrada y salida de documentos papel y electrónicos en base a la Ley de procedimiento administrativo 39/2015
<b>Eskubideak</b>	Interesdunek beraien datuak atzitu ahal izango dituzte, eta datuak zuzentzeko eskatu eta, hala badagokio, datuak ezabatzeko, datuei aurka egiteko edo tratamendua murrizteko.	<b>Derechos</b>	Los interesados pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través del Delegado de Protección de Datos.
<b>Tratamenduaren arduraduna</b>	AMEZKETAKO UDALA. CIF: P2000900G Fernando Amezketarraren enparantza z/g. 20268 Amezketa Gipuzkoa	<b>Responsable del tratamiento</b>	AMEZKETAKO UDALA. CIF: P2000900G Fernando Amezketarraren enparantza z/g. 20268 Amezketa Gipuzkoa
<b>Datuak babesteko ordezkaria</b>	P3RSEUS CIBERSEGURIDAD, SL. dpd@p3rs.eus	<b>Delegado/a de protección de datos</b>	P3RSEUS CIBERSEGURIDAD, S.L. dpd@p3rs.eus
<b>Jarduera-tratamenduak</b>	www.amezketa.eus/udala/datu-pertsonalen-babesa	<b>Actividades de tratamientos</b>	www.amezketa.eus/ayuntamiento/es/protección-datos-personales
<p>Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Amezketa Udalari emandako botere publikoaren izenean egindako misio bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikuluan jasotako baldintzetan.</p>		<p>El tratamiento de los datos de carácter personal queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al Ayuntamiento de Amezketa, en los términos previstos en el artículo 6.1 e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016.</p>	

DATA / FECHA:

SINADURA / FIRMA:

**AMEZKETAKO ALKATE JAUNA-UDALBURUARI / AL ALCALDE-PRESIDENTE DE AMEZKETA**